

BUSTURIALDEA / Liburuaren Nazioarteko Egunean liburuak eta larrosak oparituko dituzte

Bihar da Libururen eguna eta eskualdeko hainbat liburutegik berau ospatuko dute.

OLAIA ZABALONDO

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute bihar eskualdeko hainbat liburutegik. Liburuak izango dira biharko eguneko protagonistak eta, horren harira, larrosak ere oparituko dituzte.

Besteak beste, Bermeoko, Mundakako, Foruko, Gernika-Lumoko eta Eako liburutegiek gogoan izango dute egun hori eta eta zenbait jarduera antolatu dituzte.

Urtero bezala larrosak eta liburuak opari, Bermeon

Bermeoko Joxe Miel Barandiaran udal liburutegiak urtero antolatzen du jardueraren bat liburuaren egunerako.

Aurreko urteetan legez, aurten ere 'Liburu bat, larrosa bat' ekimena antolatu du. Hortaz, bihar Bermeoko udal liburutegira hurbiltzen diren erabiltzaileei, liburu bat oparitzeaz gain, larrosa bat oparituko diete.

Arratsaldean, bestetik, helduentzako ipuin kontalari saioa antolatu dute liburutegian bertan. Ixabel Millet ipuin kontalaria hurbilduko da Bermeoko liburutegira 'Printze txikia' ipuina kontatzera. Saioa 19:00etan hasiko da.

'Urdaibai artean' liburu banatuko dute Gernika-Lumon.

Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, bihar Gernika-Lumoko liburutegira hurbiltzen diren erabiltzaile guztiei Jon Kortazar idazle mundakarraren 'Urdaibai artean' liburu banatuko diete.

Bestalde, arratsaldean, egunean zehar oparitzen ariko diren liburu horren aurkezpena egingo dute. Aurkezpenean Jon Kortazar liburuaren egilea eta Rikardo Abaunza Gernika-Lumoko kultur etxeko zuzendaria izango dira, besteak beste. Aurkezpena 19:30etik aurrera izango da, kultur etxean.

'Liburu bat, opari bat' Mundakan eta Foruan

Mundakako eta Foruko udal liburutegiek ere bat egingo dute Liburuaren Nazioarteko Egunarekin. Horretarako, biek, 'Liburu bat, opari bat' ekimena antolatu dute. Herri bietan liburutegia arratsaldez bakarrik izaten da zabalik.

Eako Udalak ere hainbat jarduera antolatu ditu Nazioarteko Liburuaren Eguna ospatzeko. Lehenik eta behin, bihar bertan, 'bookcrossing' ekimena martxan ipiniko dute. Ekimen horren bitartez, Udalak irakurzaletasuna bultzatu gura du. Liburuak banatuko dituzte herrian zehar, barruan ohar bat dutela. Ohar horretan irakurleari 'bookcrossing' delakoaren nondik norakoak azalduko dizkiete.

'Bookcrossing'-ak liburuak leku publikoetan uztean datza, beste irakurle batzuek har ditzaten ondoren. Liburuak askatzean datza, beste batzuk ere liburuaz goza dezaten. Ostean liburu bakoitzaren jarraipena egiten da. Gernika-Lumon orain dela hilabete batzuk jarri zuten martxan.

Liburu azoka txikia, zapatuan

Bestetik, Eako Udalak liburu azoka txikia antolatu du datorren zapaturako. Azoka txiki hori pilotalekuan izango da, 11:00etatik 14:00etara. Herritarrek azoka horretara liburuak eraman beharko dituzte beste herritar batzuekin trukatzeko.

Azkenik, zapatuan bertan, 17:30ean, Jon Arretxe idazleak 'Zazpi kolore' liburuan oinarritutako hitzaldia emango du irudiez eta argazkiez baliatuta. Bekale aretoan izango da hitzaldia.